



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

IRASKUNDE BATZORDEAK BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ESTATUTUAK ALDATZEA ONETSI DAU

- **Bizkaiko Ahaldu Nagusia Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzordearen Aurrera etorri da, Londresera egin dauen bisitaren eta Gaztelugatxeko San Joanen aparkalekua eregitearen barri emoteko.**

(Bilbon, 2019ko azaroaren 28an).- Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordeak, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Estatutuen aldaketea onetsi dau, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen bederatzi botoakaz. Aldaketaren kontrako proposamena aurkeztu dauen EH Bilduk kontrako botoa emon dau, eta gauza bera egin dau Elkarrekin Bizkaia taldeak. Talde bien artean kontrako bost boto batu ditue.

EH Bilduren izenean, testu barriak Partzuergoko presidentzia aukeratzeko quoruma desagertzea jasoten dauela eta “udalerrri txikiek gero eta garrantzi gitxiago daukiela” kritikau dau Iratxe Arriolak. Horrez gain, Arriolak, estatutu barriek, alderdiek Kontuen Batzorde Berezian daukien ordezkartzaren proportzionaltasuna jasotea be eskatu dau.

Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaia taldeko bozeroaleak, aldaketea “munizipalitatearen kontra doala” esan dau, eta Aldunditik udalerrri txikiak “ito” gura dirala, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan sartu daitezana.

Aldaketaren alde agertu diran taldeek azpimarratu dabenez, helburua Estatutuak arautegira egokitzea da, 40/2015 Legea, hain zuzen be, eta ukatu egin ditue aitatu diran kontrako argudioak. “Udal autonomiari eusten jarraitzen dogu, eta estatutu barri honeengaitik ez da hori murrizten”, defendidu dau Jesús Lekerikabeaskoak (Euzko Abertzaleak). “EH Bilduk planteetan dituan puntu batzuk ez dagoz aldaketan”, nabarmendu dau Ekain Ricok, Euskal Sozialistak taldearen izenean.

Londres eta Gaztelugatxe

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusia, Batzordera etorri da, Londresera egin dauen bisitaren eta Gaztelugatxeko San Joan inguruan 51 ibilgailurentzako aparkalekua eregitearen barri emoteko, Elkarrekin Bizkaia eta EH Bilduk eskatuta, hurrenez hurren.

“Gure beharra Bizkaiko personengan pentsatuta egin gendun, gure lurraldera talentua erakarteko” erantzun dau Rementeriak, Ingalaterrako uriburura egindako bidaiaren ganean berba egitean. Esan dauenez, “epe ertainean, apurka-apurka, albiste onak helduko dirala uste dogu”.

Bigarren gaiari jagokonez, Bizkaiko Ahalduen Nagusiak esan dauenez, aparkaleku barriak “Gaztelugatxeko San Joan ingurua zaintzea eta arautzea” eta bisitari asko joaten danez gaur egungo sarbideek sortzen dituen segurtasun arazoak saihestea bilatzen dau.

Rementeriak adierazo dauenez, aparkalekua Babestutako Biotopotik kanpo dago, eta azken helburua, “Juego de tronos” telesailen agertu zanetik, batez be, milaka bisitari erakarten dituan leku horretara joateko garraio zerbitzu publikoaren erabilera sustatzea da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA COMISIÓN INSTITUCIONAL APRUEBA LA MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS DEL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA

- **El Diputado General de Bizkaia ha comparecido ante la Comisión de las Juntas Generales de Bizkaia para informar sobre su visita a Londres y sobre la construcción de un aparcamiento en San Juan de Gaztelugatxe.**

(Bilbao, a 28 de noviembre de 2019).- La Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado con los nueve votos de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos la modificación de los Estatutos del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia. EH Bildu, que ha presentado una propuesta de oposición a la modificación, ha votado en contra, al igual que Elkarrekin Bizkaia, sumando entre los dos grupos un total de cinco votos contrarios.

En nombre de EH Bildu, Iratxe Arriola ha criticado que el nuevo texto incluye la desaparición del quorum en la elección de la presidencia del Consorcio y “profundiza en la minimización de los municipios pequeños”. Arriola ha pedido además que los nuevos estatutos recojan la proporcionalidad de la representación con la que los partidos cuentan en la Comisión Especial de Cuentas.

Eneritz de Madariaga, portavoz de Elkarrekin Bizkaia, ha asegurado que la modificación “va en contra de la municipalidad” y que desde la Diputación se quiere “ahogar” a los pequeños municipios para que se integren en el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia.

Según han destacado los grupos que han defendido la modificación, el objetivo es adecuar los Estatutos a la normativa, en concreto, a la Ley 40/2015, y han negado los argumentos en contra expuestos. “Seguimos manteniendo la autonomía municipal que no se reduce por estos nuevos estatutos”, ha defendido Jesús Lekerikabeaskoa (Nacionalistas Vascos). “Hay cuestiones que EH Bildu plantea que no están en la modificación”, ha subrayado Ekain Rico, en representación de Socialistas Vascos.

Londres y Gaztelugatxe

Unai Rementeria, Diputado General de Bizkaia, ha comparecido además esta mañana para informar sobre el resultado de su visita a Londres y sobre el aparcamiento para 51 vehículos en el entorno de San Juan de Gaztelugatxe, a petición de Elkarrekin Bizkaia y de EH Bildu, respectivamente.

“Hicimos nuestro trabajo pensando en las empresas y personas de Bizkaia para atraer talento a nuestro territorio”, ha respondido Rementeria respecto a su viaje a la capital inglesa del que espera “a medio plazo un goteo de buenas noticias”.

Sobre la segunda cuestión, el Diputado General de Bizkaia, ha señalado que el nuevo aparcamiento pretende “cuidar y regular el entorno de San Juan de Gaztelugatxe” y evitar los problemas de seguridad que los accesos actuales provocan por la afluencia masiva de visitantes.

Rementeria ha asegurado que el aparcamiento está fuera del Biotopo Protegido y que el objetivo final es promover la utilización del servicio público de transporte para acceder a este lugar, que atrae a miles de visitantes, sobre todo, desde su aparición en la serie “Juego de tronos”.